

KANALAK

Lehenik eta behin, gure komunikazio-kanalak sare sozialak izango dira nagusiki, instagram, tiktok etab. izango dira. Hauen bitartez, bezeroak bereganatzen saiatuko gara.

Banaketa kanaletan furgonetaz baliatuko gara, gure produktuak eskoletara, nahiz dendetara iritsi dadin modu seguru eta azkar batean. Furgoneta ez da gurea izango, alokairukoa baizik.

Gure produktua merkaturatzeko, webgune eta dendaz baliatuko gara, pertsona orok izango du erosotasun handiz gure produktua erosteko aukera. Horrez gain, haur-eskoletan gure produktua eskainiko dugu bere onurak eta abantailak haur eta ingurunearen ongizatearekiko. Honekin, helburua haur-eskolelara eta jendeari gure produktua saltzea da, ingurunearen garrantzia kontuan hartzen dela ziurtatzeaz gain.

EkoPañal produktua banatzeko eta ezagutarazteko erabiliko diren kanal nagusiak haur-eskolak izango dira, izan ere, hauek dira gure erosle nagusiak. Haur-eskolelara zuzeneko salmenta eskainiko dugu. Horrez gain, banaketa osatzeko, online presentzia izango da: webgune ofiziala, informazioa eta erosketak eskainiko dituen.

Produktua denda fisiko espezializatuetan ere jar daiteke eskuragarri, hala nola haur zaintzarako dendetan, eko-dendetako saltokietan...

Komunikazioari dagokionez, kanal nagusiak haur-eskolelako aurkezpen eta tailerrak izango dira, hezitzaile eta zuzendariei produktua eta bere onurak modu praktikoan azaltzeko. Halaber, azoka ekologikoak aprobetxatuko dira EkoPañal ezagutarazteko.